

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2019ko errolda jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea

Behin-behineko onetsi delarik Gaubeako udalerriko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2019an ordaindu behar dutenen errolda, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodun aurrera, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkez daitezzen.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa 2019ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra artekoa izango da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2019ko ekainaren 28an kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Dena den, zera jakinarazten zaie zergadunei: ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Gaubeako Udalari jakinarazi behar zaio.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta lege ezarritako errekaruak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2019ko apirilaren 24a

Alkate-lehendakaria

JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI